

eskutitzak



bizkaia@egunkaria.com



Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

Holan ezin liteke aurrera jarraitu (garraioaren inguruan berba batzuk)

Jon Olabari • DURANGO

Asteon bizi izan dodan etsipenetik sortutako pentsamentuak baino ez dira lerrootan azaldu gura dodazanak. Ez dira sakon aztertutako berbak, baina ikusitakoak eta jasandakoak sentidu eragin deustana baino ez dot esan gura.

Azkenenego egunetakoa zoraturteko modukoa izan da. Bilbora sartzera abentura latza izan da uriburukoak izan ez eta uriburura joan beharrean izan garenontzat. Ez dakit seguru abenturatzat jo beharko geunken ala artezean torturatzat jo beharko geunken. Joan dan bari-kukoa, esate baterako, inoiz bizi ez dodana izan zan.

Ez da berez be asko behar izaten gure A-8 liluragarri horrek ganezka egiteko. Istripu txiki bat, kotxe batek beste bat atzetik jotea nahikoa izaten da iladak Malmasingo tunela baino harago ailegatu daitezana.

Baina egunotan urte birik behin daukagun gertakizuna batu jako berez txarra izaten dan bideetako egoerari: makina eta erreminta arloko biurtekoa. Badakigu ekonomiarentzat eta Bizkaia-arentzat ezinbestekoa dan azokea dala, baina arazoei konponbidea emon behar jake eta ez bertan behera laga. Ez dira normalak Bilbora sartzeko garraio publikoa erabilten dogunok be sufridu behar izaten doguzanak.

Ez dakit zein dan bidea, baina sasoa da jenteak garraio publikoak dituen abantaileri erreparatzeko. Dudarik ez dago jenteak ohitura batzuk dituela eta kasu askotan erosoago gertetan jakola autoa hartu eta autoagaz leku batetik bestera ibiltea. Dana dala, gaur egun Bilbora joateko orduan, pentsetan dot, gehiago izan leitekezala abantailak eragotzenak baino.

OHARRA: Ahalik eta eritxi gehienek lekua izan daien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun honeetan. Idatzi dauenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, zuzendaritzak bere esku dau horretarako eskubidea. Erdaraz ailegetan diran gutunak ez dira argitaratuko.

Holan ezin liteke. Ez dakit zein dan konponbidea. Izan be, ez dot pentsetan hori kamino handiagoak edo kamino gehiago eginda konpontzen danik. Ez dakit zer dan, hezkuntza faltea edo leku batzuetatik besteetara joan ahal izateko garraio publikoa behar dan moduan ez dabilela.

Behabada hezkuntza kontua izango da, holan bada, alde horretatik be bada go zer egin eta hasteko sasoa dala deritxot. Hezkuntzearen kontua, gainera, ez dot pentsetan garraio publikoa erabiltera bakarrik bideratu behar danik. Euren autoa edo kamioia erabilten daben horreek askotan jokabide ardurabakoak dirala eta sortzen dituen istripuen ganean be zeozer egin behar da.

Niri egunotakoak zer pentsaua emon deusta. Beharbada batzuk esango dabe azokea Barakaldora eroaten danean ez dala hainbesterako izango. Orduan be besteren batek jasan beharko dau asteon batzuk euki doguna.

BBVAko lehendakariari erantzuna

Kerman Bilbao. Zordunok-en, Hemen eta Munduan-en, Komite Internazionalisten eta Hautsiren izenean • BILBO

Hilaren 9an Euskalduna Jauregian BBVA egiten ebilen akziodunen batzarren inguruan protestea egiteko asmoz bildu ginan talde eta alkarte

batzuk. Jai giroan salatu gura izan genduan bankuaren politika ekonomikoa, ekonomia kapitalista globalizatuaren eredia dalako gure ustez.

Ekitaldiaren inguruan egozan segurtasun neurriak ikaragarriak izan ziran «globalizazioaren kontrako arradikalen» ekintzaren bat aurreikusten zalako. Horreek, ganera, batzarra eten eta normaltasuna eragotzi eben.

Lerrootan bidez Francisco Gonzalezen, BBVAko lehendakariaren, adierazpenei erantzun gura deutsiegu. «Behar demokratiko bat eten gura dabe eta horrek erakusten dau zeintzuk diran euren bizitzako idealak eta ez dabela besteen askatasuna errespetetan», esan eban Gonzalezek barruan modu baketsuan protesta egin ebenen ganean.

Gonzalez jaunari esan gura deutsogu demokrazia eta askatasuna dira han gengozan alkarte eta erakunde guztiak batzen gaituena. Guztion parte hartzean oinarritzen dan demokrazia, aukeren benetako bardintasunean, herriak eta pertsonak garatzeko bardintasunean, alkarren artean hartutako arduetan oinarritzen dan aukera askatasunean. Ardura horrek kontuan hartzen ditu herriengan, inguruan eta pertsonengan zelan eragiten dan.

Argi dago Gonzalez jaunak horreen berbon esangurea ez dauela zuzen erabilten. BBVAk egiten dauen beharrari izakera demokratikoa emon gura deutsu bankuaren emoitza «batzar» batek onartzen dituelako bakarrik. Hori esperpentoaren pareko zeozer dala pentsetan dogu. Gonzalez jaunak zuzentzen dauen erakundearen helburua ez da guztiok sortzen dogun aberastasuna guztion artean banatzea, bere eskuetan biltzea baino.

Horretarako erabilten diran bideak izakera demokratiko sakonekoak dira: arma enpresatan inbertitzea, enpresa publikoen pribatizazioaz arduratzea

eta, horren ondorioz, jentea kaleratzea, etxebizitzakaz espekulazioa, hedabideak kontrolatzea...

Gonzalez jaunak defendatzen dauen askatasun bakarra kapitalarena da. Beste aberastasunari ostutako kapitalarena. Ez dau kontuan hartzen kapitalaren askatasun hori erabilia beste batzuetan murrizten dauela, kasu batzuetan bizitzeko eskubidea bera be ezbaian ipinteraino.

Zure askatasunaren izakera inguruko gehienak desagertu arazotea danez, ez dogu pentsetan demokraziaren eta askatasunaren ganean berba egiteko pertsonarik egokiena zarenik. Hori dala zure adierazpenak salatzeke eta horreen ganean jentea sentsibilizatzeko ekintzak egin beharrean gagozala uste dogu. Horretarako egon gara Bartzelonan atzo eta hereinegun.

Holan ba, eta kriminalizazio olatu honen barruan terroristatzat joko gaituzula badakigunez, aurreratu egin gara eta terrorista benetan nor dan planteatu gura izan dogu.

Gauetarako alternatibak eskaini behar jakez

Miren Artabe • BILBO

Azkenengo hilabeteetan hautsak harro datoz gateen gauetako ohiturak dirala eta ez dirala. Bilbo.Gaua moduko ekimenak egokiak izan leitekez joera horreek aldatzeko. gazteei beste aukera desbardin bat eskaintzen jake holan. Nik uste dot gero eta erakargarriagoak diran egitarauak dirala.

Hori, esate baterako, Bilbon egitea posible da eta urietan be egin ahal dira eta egiten dira. Baina herri txikietan egin ahal dan gauza bat ete da? azken batean baliabide asko eskatzen ditu horrek be. Erraz esaten da gauetako ohiturak aldatu egin behar dituela gazteek, baina aukerak emon behar jakez.

asfaltoko kronikak

Gotzon Hermosilla

Barikuan hasi ziran Deustuko jaiak, eta horreekaz batera, Euskal Herri osoa urrira arte sutan eta dantzaz jarriko dauan denboraldiari hasiera emon deutsagu. Guzurrea dirudi: oraindino Durangoko festetako kalimotxoak itzi euskun bihotzerrea kendu ezinik gabiltz, eta hemen dogu osteria be parrandarako atxakia. Deustuko jaiak izaten dira lehenengoak. Deustuko jaiak: hamaika barre, hamaika zurruta, hamaika amodio-istorioren eszenatoki aparta. Deus Town, Jose Luis Otamendik ipuin batean dinoan moduan. Danok daukagu gomuten ganbarea Deustuko jaietako irudiz bete-ta: musikea, olgetea, solomo ogitarteko-en usain gozoa. Nireak, baina, ez dira hain eztiak. Neuretzat, Deustuko jaiak autobiodearen erdian ahaztutako motor bategaz,

asfaltoaren ganean erdibitutako gorpu gazte bategaz, hileta mingots baten gomutagaz lotuta egongo dira beti. Baina hobe dogu horreek kontuok albo atera laga. Jaiak berba egiten hasi gara, eta jai-giroan jarraitzea izango da onena.

Aurten, esfortzu handia egin dau Jai Batzordeak egitarau erakargarria atontzen, eta, beti lez, irudimena da nagusi. Berbarako, lasterketa bat gertau dabe Euskalduna zubian, baina supermerkatuetan erabilten diran orgatxo horreetako bat ibili beharko dabe lasterkariak. Goming izeneko beste lehiaketa bat be pa-

rau dabe, baina ez galdetu zertan dan, neuk be ez dot ondo ulertu eta. Herri kirolak, txistorra-jana, kontzertuak... Ikusten dozuenez, umorea ez dabe falta tomatearen errepublikan.

Jai Batzordearen eta Udalaren arteko okasinoak ilundu ditu jaiak. Ez da kontu barria, baina aurton Udala tematu da jaiak murrizten, eta hori dala-eta, datorren asteburuan ekitaldiak egunez baino ez dira izango. Atxakiak, betikoak: zartea gitxitzea (antza danez, urteko gainontzeko asteburuetan ez dago zaratarik, ez eta Deustutik hur dagozan diskoteken in-

guruan be), iskanbilak ekiditea (iskanbilok jai-esparrutik kanpo jazoten diran arren) eta abar. Aurrekoan, harritu samar geratu nintzan udal agintari baten adierazpenakaz: larregizko arrakastak akabatu ei ditu Deustuko jaiak. Hori da agintaren erabagi askoren atzean dagoan pentsamoldea: zerbait antolatzen badozu, tira, baina kontuz! arrakasta be arriskutsua izan leiteke-eta; jaietan bazagoz, ondo pasa, baina ez gehiegi. Benetan, gurasokeria hori ez dot ulertzen. Deustuko Batzordeak jai arrakastatsua antolatzen baditu, ez litzateke zentzuzkoagoa izango Batzorde horri baliabideak emotea beharrean segi daian, eta euren beharra hain ondo egiten ez dabenei (agintariak barne) kargu hartzea, norbaiti hartzekotan?